

Sebastian Aristizabal Irigoien.  
Francisco Ignacio Arakama Zubelzu.

Urdiain (31810)

## SAKANAKO UDALEI ETA MANKOMUNITATEARI:

### SARRERA

#### Nor gara

Eskualderako izaera duen makro-poligonoaren egitasmoa (Urdiain-Altsasu industriarako gunea. Udalaz gaindiko Plan Sektoriala) dela-eta, Urdiainen eskakizun zehatz baten inguruan Batzarrean bildu eta plataforma bat osatu dugu 2009. urte honetako otsailean.

2008an bi hilabeteko epea egon zen proiektu horri administrazioarekiko auzibidean helegiteak aurkezteko, baina prozesua isiltasun osoz eraman denez, horrek Urdiaingo lurjabe eta bizilagunak defentsa gabe utzi gaitu, helegiteak jartzeko aukerarik gabe. (Erantsita duzue hori egiaztatzen duen agiria).

Aurtengo urtarrilean, Urdiaingo aldean proiektuak hartzen dituen lurak espropiatzeko —derrigorrez eta urgentziaz espropiatzeko— abisuak igorri dizkie Nafarroako Gobernuak eremu horren jabe diren 127 lurjabeen.

Une horretatik aurrera, herriko lurjabeak eta bizilagunak plataforman bildu gara, urgentzia zela-eta, Nafarroako Gobernuari proiektua atzeratzea eskatzen diogu, eta eskaera horrekin bat egin dute adinez nagusi diren 225 urdiaindarrek.

Bildutako jendearen ideologia eta sentsibilitate politikoari dagokionez, aniztasun zabalekoa da Batzarra.

#### Zergatik bildu gara

Batzarrean bildu garen urdiaindarrok **ez dugu ikusten inolaz ere urgentziazko motiborik holako egitasmo batendako.**

Batzarrean bildu garen plataformako kideok beharrezkoago ikusten ditugu, adibidez, herrietako poligonoak, eta Urdiainen ere Viscofan eta Magoteaux artean zedarritutako poligono baten alde gaude hasiera hasieratik.

Labur bilduz zehaztuko ditugu Urdiain-Altsasu UPS deritzonaren kontra egoteko, gure ustez, pisuzkoak diren bi arrazoi: **proiektuaren ezaugarriak** batetik, eta **bizi dugun krisi egoera** bestetik.

- a) Proiektuaren nolakotasunari dagokionez, **eskualderako poligonoa** dela azpimarratu behar da, eta ez inolaz ere Urdiain bezalako udalerrri bati dagokion poligonoa. (Eranskinetako argibide orrietan azaltzen da poligonoen nolakotasunagatik Sakanarako egon daitezkeen aukerak).
- b) Bestalde, zentzuz eta ardura politikoz jokatu nahi badugu, saihestu ezina zaigu gaur egun **bizi dugun kinka larriko egoera ekonomikoa eta soziala, horrelako proiektu baten premia ezbaian jartzen duena oinarri oinarritik**. Edozein dela ere krisi honen inguruan egiten dugun azterketa, argi dago ezingo garela XX. mendeko eredu industrialera bueltatu. Halako errezetak zaharkituak gelditu dira, eta egoera berrira egokitzeke beta hartzea eskaintzen digu uneak berak eta gogoeta egiteko beharra.

### Zer eskatzen dugu

---

Eskualderako den proiektu honen exekuzio prozesuan **moratoria edo luzamendua** eskatzen dugu.

Proiektua atzeratzeko eskatzen dugu:

Denok, sakandar guztiok, informazio zehatza eta kontrastatua jasotzeko bitartekoak izan eta eskualderako den proiektu honetaz denok eztabaidatu eta aukera guztiak aztertzekeo posibilitatea izan dezagun. Gero, arduraz, erabakiak hartu ahal izateko.

### Zergatik eskaera hori

---

Esan bezala, Nafarroako Gobernuak balizko industria jasotzeko neurri handiko gunea urbanizatu nahi du Urdiainen eta Altsasun. Urgentziatzeko prozedura jarri du martxan milioi bat metro koadroko gunea desjabetzeko.

Eta, zergatik gure eskaera hau? Bada,

- a) Bertan industria jasotzeko balizko hipotesiarekin eta gaur egun bizi dugun egoerarekin, halako **neurri gabeko aurreikuspen** —gure ustez— **okerrak** Burunda aroko Urdiaingo nekazaritza **lurrik hoberenak hondatu** besterik ez dituelako egingen.
- b) Bestetik, Sakanako lurralde antolaketari dagokionez, **eskualedea modu batean egituratu / desegituratu egingo duelako**, eta, gure ustez, diseinu horretan Sakanako herri guztiak dute zeresana, eskualdeari begira, inbertsio horiek beste modu eraginkor eta orekatuago batean bidera daitezkeelako.

Berebiziko garrantzia duten arrazoi hauengatik jo dugu udal honengana, eta baita gainerako Sakanako udaletara eta Mankomunitatera ere, eskualderako den proiektu honen gainean erakunde guztiok dutelako erabakitzekeo eskubidea eta beharra.

---

## MOZIOA

“Urdiain-Altsasu” eskualderako poligonoaren egitasmoa dela-eta, UDAL HONI ESKAERA BAKARREKO MOZIO HAU HELARAZTEN DIOGU, DEBATITU ETA ONAR DEZAN:

Aipatu arrazoi hauengatik:

- a) Eskualderako poligonoaren proiektuaz sakandar denok informazio guztia, zehatza eta kontrastatua jasotzeko posibilitatea izan dezagun.
- b) Sakanako herri guztiok aukera guztiak aztertzekeo eta debatitzekeo aukera izan dezagun.
- c) Ondoren, arduraz, guztiok erabakiak hartu ahal izateko.

Horrengatik, Urdiain-Altsasu makro-proiektuaren prozesuaren aurrean Udal honek

**MORATORIA ESKAERA egiten dio Nafarroako Gobernuari, proiektuaren exekuzioa atzeratzeko eskaerarekin bat eginez.**

*Sakanan, 2009ko maiatzaren 8an.*

Sinatua: